

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>duineza</b>	«Garbi utzi behar da: alemaniar intelektual ororentzat <b>duineza</b> da judutar baten ideiak jarraitzea.»
<b>zorabio</b>	«Bat-bateko <b>zorabio</b> batek goitik behera astindu zuen, ordea...»
<b>amildu</b>	«Belztasun hondogabe batean <b>amiltzen</b> sentitu zen une batez.»
<b>murmurikatu</b>	«—Prometeo — <b>murmurikatu</b> zuen, begiak itxiz.»
<b>malkar</b>	«Galtzaileen zapore <b>malkarra</b> zeukan.»
<b>aiene-melodia</b>	«Biolin baten <b>aiene-melodia</b> .»
<b>itsumustuko</b>	«...aurpegia gorritua zeukan, batera eta bestera ibili beharrak eta, agian, <b>itsumustuko</b> beroak eraginda.»
<b>zurrun</b>	«Hotza eta <b>zurruna</b> izan zen emakumearen begirada.»
<b>higatu</b>	«Gizon luzanga eta <b>higatu</b> hark zientzialaria edo eroa baino ezin zuen izan...»
<b>janari-orban</b>	«Bi <b>janari-orban</b> deigarrik zeharkatzen zuten Einsteinen alkandora zuria.»
<b>harilkatu</b>	«Basapiztia ilehoriek bata bestearen atzean <b>harilkatzen</b> zituzten garaipenak, beren esbastikaren azpian...»
<b>esbastika</b>	«Basapiztia ilehoriek bata bestearen atzean harilkatzen zituzten garaipenak, beren <b>esbastikaren</b> azpian...»
<b>tximadun</b>	«Lehoi- <b>tximadun</b> jakintsuak zientzia- mundu berriak abiarazi, eta ikusi ondoren onartu nahi izan ez zituelako.»
<b>paranoia</b>	«...aristotelesengandik hona izandako logikorik handiena, <b>paranoia</b> mota guztiek jota zegoen.»
<b>espartano</b>	«Einsteinen gela nahiko <b>espartanoa</b> zen: mahai bai eta aulki bi, arbela, egurrezko apalak...»
<b>akolito</b>	«Naturaren <b>akolito</b> nauzu, ez beste jainkorena.»
<b>sanskrito</b>	«Bai, Oppenheimerrek irakurrita zeukan <i>Baghabad Gita</i> . Eta jatorrizko <b>sanskritoan</b> gainera.»
<b>atabiko</b>	«...eta, Einsteinek, egia zen, oso gogokoa zuen orriotan sumatzen zuen espiritualtasun gori, hunkigarri eta <b>atabikoa</b> .»
<b>panteismo</b>	«Bere Baruch Spinoza maitearen <b>panteismo</b> zintzotik oso gertu sentitzen zuen.»
<b>erdeinu</b>	« <i>Terra incognitan</i> ari ginen. Ezezaguna, arriskutsua eta <b>erdeinuz</b> jositako lurra.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>dexente</b>	«...bonbaren eraikuntza bukatu genuenean eztabaida <b>dexente</b> izan zela.»
<b>ekidinezin</b>	«Baina ez naiz horregatik etorri, Albert. Hori <b>ekidinezina</b> da.»
<b>perifrastikoa</b>	«Alegia, ezetz, aski <b>perifrastikoa</b> bazen ere. Einstein... Kontseilariak ez zeukan erremediorik.»
<b>betiereko</b>	«Ez zen inguruan <b>–betiereko</b> bizkartzainak salbu– beste inor ikusten.»
<b>marmar</b>	«Eraikinaren txoko bateko iturriaren <b>marmar</b> isilak iluntzeko beste zaratak estali zituen.»
<b>deliberatu</b>	«Lana da emaitzak lortzea <b>–deliberatu</b> zuen Bennettek, zorrotz–.»
<b>katigatu</b>	«Hemingwayren sanferminak ezagutzera joan eta azkenean Donostian <b>katigatuta</b> gelditu nintzen...»
<b>atoan</b>	«Bennetten begirada hotza ikustean <b>atoan</b> isildu zen–.»
<b>bere baitarako</b>	«Akabo <b>–errepikatu</b> zuen Peterrek <b>bere baitarako</b> –.»
<b>urretxindor</b>	«Ikusten ditudanean gorriz tindaturiko lainoak, arrosen itzaltze arina eta <b>urretxindorren</b> kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girdanden artean...»
<b>ostargi-belar</b>	«Ikusten ditudanean gorriz tindaturiko lainoak, arrosen itzaltze arina eta urretxindorren kanta sakon eta tristea <b>ostargi-belarren</b> girdanden artean...»
<b>girlanda</b>	«Ikusten ditudanean gorriz tindaturiko lainoak, arrosen itzaltze arina eta urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren <b>girdanden</b> artean...»
<b>gloria mundi</b>	«...urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girdanden artean, hau baino ezin dezaket oihuka, bihozminez: <i>sic transit gloria mundi.</i> »
<b>sic transit</b>	«...urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girdanden artean, hau baino ezin dezaket oihuka, bihozminez: <i>sic transit gloria mundi.</i> »
<b>irrikatu</b>	«Orain, ordea, beste norbaiten hurbiltasuna <b>irrikatu</b> zuen.»
<b>preseski</b>	«Eta Mireia ez zen <b>preseski</b> soraio munduarentzat: izan zuen amodio aferaren bat edo beste arrosa-pastel koloreko horma haien artean.»
<b>soraio</b>	«Eta Mireia ez zen preseski <b>soraio</b> munduarentzat: izan zuen amodio aferaren bat edo beste arrosa-pastel koloreko horma haien artean.»
<b>afera</b>	«Eta Mireia ez zen preseski soraio munduarentzat: izan zuen amodio <b>aferaren</b> bat edo beste arrosa-pastel koloreko horma haien artean.»
<b>sarkasmo</b>	«—Halabeharra <b>–erantzuten</b> zuen neskak, <b>sarkasmoari</b> helduta—. Eta egoskorkeria apur bat.»
<b>egoskorkeria</b>	«—Halabeharra <b>–erantzuten</b> zuen neskak, sarkasmoari helduta—. Eta <b>egoskorkeria</b> apur bat.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>ezgauza</b>	«Kapitainak ondo ezagutzen zuen arrazoa: promozio berriak gero eta harrogoak ziren, hauskorak eta <b>ezgauzak</b> bezainbeste.»
<b>prozac</b>	«Eta kalea ekintza zen. Eta ekintza bere <b>prozac</b> partikularra.»
<b>zoli</b>	«—Beraz? —Zeure esku. Beti bezain <b>zoliak</b> , ironizatu zuen Ramírez kapitainak. Bere kolkorako, noski.»
<b>bere kolkorako</b>	«—Beraz? —Zeure esku. Beti bezain zoliak, ironizatu zuen Ramírez kapitainak. <b>Bere kolkorako</b> , noski.»
<b>iseka egin</b>	«Nolanahi ere, Juneri hurreratzen zitzaion bakoitzean neskak <b>iseka egiten</b> zion. Anker eta temati.»
<b>oinordetza</b>	«Guraso kubatarrek itxura eta odol karibetarra eskaini zioten <b>oinordetzaz</b> , eta horri esker ez zitzaion zailegia neskak erakartzea.»
<b>anker</b>	«Nolanahi ere, Juneri hurreratzen zitzaion bakoitzean neskak iseka egiten zion. <b>Anker</b> eta temati.»
<b>temati</b>	«Nolanahi ere, Juneri hurreratzen zitzaion bakoitzean neskak iseka egiten zion. Anker eta <b>temati</b> .»
<b>ziztuan</b>	«Poliki sartu zen, baina bere begiek txoko guztiak aztertu zituzten <b>ziztuan</b> .»
<b>lanean zorrotzagorik!</b>	«Ondarretako komisariara joanda egongo zen ordurako. Demontre. <b>Lanean zorrotzagorik!</b> »
<b>ganbara</b>	«Begiak erdi itsatsita eta <b>ganbara</b> aldea batere fin ez. Buf. Burua mugitzen saiatu zen.»
<b>eldarnio-hazi</b>	«Hortik sortuko zitzaion obsesioa, suposatzen zuen Josebak. Diligentzia amaigabeek ereingo zuten <b>eldarnio-hazi</b> bitxi hura.»
<b>xixkalari</b>	«Amaiak, berriz, (...) irudizko ikerketak egiten zituen edo (...) <b>xixkalarien</b> lapurreta oro –imajinazioan, bederen– errepikatu.»
<b>alferrik galduta egon</b>	«— <b>Alferrik galduta nago</b> , Joseba –jarduten zitzaion Amaia sarritan, Josebari–.»
<b>erein</b>	«Hortik sortuko zitzaion obsesioa, suposatzen zuen Josebak. Diligentzia amaigabeek <b>ereingo</b> zuten eldarnio-hazi bitxi hura.»
<b>zapuztu</b>	«Amaiak, berriz, <b>zapuztutako</b> ametsen ordainean, irudizko ikerketak egiten zituen edo (...) xixkalarien lapurreta oro –imajinazioan, bederen– errepikatu.»
<b>bederen</b>	«Amaiak, berriz, zapuztutako ametsen ordainean, irudizko ikerketak egiten zituen edo (...) xixkalarien lapurreta oro –imajinazioan, <b>bederen</b> – errepikatu.»
<b>mikatz</b>	«Ahoko zapore <b>mikatzak</b> ajearen ebidentzia sendotu zion.»
<b>aje</b>	«Ahoko zapore mikatzak <b>ajearen</b> ebidentzia sendotu zion.»
<b>hauskor</b>	«Argia eta gogorra bezain sentibera, hausnartu zuen Josebak. <b>Hauskor</b> aura batek inguratzen zuen beti, obsesioaren oldarrak oldar..»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>aura</b>	«Argia eta gogorra bezain sentibera, hausnartu zuen Josebak. Hauskor <b>aura</b> batek inguratzen zuen beti, obsesioaren oldarrak oldar..»
<b>oldarrak oldar</b>	«Argia eta gogorra bezain sentibera, hausnartu zuen Josebak. Hauskor aura batek inguratzen zuen beti, obsesioaren <b>oldarrak</b> oldar..»
<b>lepoa egin</b>	«Telebistakoa Ibaetako Physics Center-eko eraikinetako bat zen, <b>lepoa egingo</b> zukeen Josebak.»
<b>erdia pasa</b>	«Beheko eraikinaren <b>erdia pasa</b> bel-beltza, zeharo gardostua, eta ke zutabeak ateratzen ziren handik eta hemendik.»
<b>gardostua</b>	«Beheko eraikinaren erdia pasa bel-beltza, zeharo <b>gardostua</b> , eta ke zutabeak ateratzen ziren handik eta hemendik.»
<b>petraldu</b>	«...-azaldu zion Josebak eraikina seinalatuz eta ahotsa gozatuz; ez zitzaion ertzaina <b>petraltzea</b> komeni-. Faborez, zer gertatu da hemen?»
<b>askoa</b>	«Eraikin itxuroso <b>askoa</b> zen lehen, eta orain porlan eta plastikozko artelan postmoderno, ikaztu eta gaixotia besterik ez zuen ematen.»
<b>esatear egon</b>	«Taxi gidariari gelditzeko <b>esatear egon</b> zen...»
<b>laudagarri</b>	«Zaletasun hura <b>laudagarria</b> bai, baina ezin zela ona izan hainbesterainoko <i>sukarra</i> .»
<b>fin aritu</b>	«Bere ohiko lanean <b>fin aritzen</b> zen, eta ezz zuen inolako eragozpenik sortzen.»
<b>eragozpen</b>	«Bere ohiko lanean fin aritzen zen, eta ez zuen inolako <b>eragozpenik</b> sortzen.»
<b>erronkari</b>	«Gaztaina-koloreko ile lisoa, irribarre <b>erronkaria</b> ...»
<b>di-da batean</b>	«Egin beharreko artikulua <b>di-da batean</b> amaitu nahi zituen, lehenbailehen kentzeko gainera.»
<b>xixko eginda geratu</b>	«Eta gainera porrot handia jasan zuen bere ikerketan. <b>Xixko eginda</b> geratu zen.»
<b>hara</b>	«Neure urtebetetzea da gaur. — <b>Hara</b> , ez nekien. Zorionak.»
<b>haraindiko</b>	«...zelaia ur gortinak lausotua zegoen. <b>Haraindiko</b> zuhaitzak laztantzeko keinua egin zuen, perspektiba-jolasaren laguntza...»
<b>lausotua</b>	«...zelaia ur gortinak <b>lausotua</b> zegoen. Haraindiko zuhaitzak laztantzeko keinua egin zuen, perspektiba-jolasaren laguntza...»
<b>martiri</b>	«— <b>Martiri</b> bihurtu zaitu –bota zion Einsteinek—. Ez zara kexatuko!»
<b>trauskil</b>	«—Baina nola –Oppenheimerrek Tellerren doinu <b>trauskil</b> eta apur bat lakarra imitatu zuen, hungariarra baitzen...»
<b>lakar</b>	«—Baina nola –Oppenheimerrek Tellerren doinu traukil eta apur bat <b>lakarra</b> imitatu zuen, hungariarra baitzen...»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen: Nota: 

<b>sekuoia</b>	«Gazte haien artean Landau nagusitzen zen, <b>sekuoia</b> bat bitxiloreen artean bezala...»
<b>barre karkara</b>	«—Ez dut sekula ahaztuko —hasi zen Einstein, <b>barre karkara</b> ozena eginez— behin bota zidana.»
<b>tiradera</b>	«Einsteinek <b>tiraderatik</b> pipa atera eta ahoan jarri zuen, baina piztu gabe.»
<b>patu</b>	«Landauk lepo atzean sumatu zuen <b>patu</b> ilun haren kiratsa.»
<b>ulu</b>	« <b>Ulu</b> bakoitzean ultimatum mehatxagarria entzuten zuen, eta eguna jaio bezain laster jaikitzen zen, kezka melatua.»
<b>bailitzan</b>	«Musika hura egiteko ur-jauzi baten moduan erori zitzairen gainera zientzialari guztiei, hitzik gabe, aiene atabikoa <b>bailitzan</b> .»
<b>pianissimo</b>	«...biolina atera zuen. Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, <b>pianissimo</b> batekin hasiz, nota luze, ziztakariekin <i>in crescendo</i> -ra egiteko.»
<b>in crescendo</b>	«...biolina atera zuen. Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, <b>pianissimo</b> batekin hasiz, nota luze, ziztakariekin <i>in crescendo</i> -ra egiteko.»
<b>ziztakari</b>	«...biolina atera zuen. Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, <b>pianissimo</b> batekin hasiz, nota luze, <b>ziztakariekin</b> <i>in crescendo</i> -ra egiteko.»
<b>zurtu</b>	«Mekanika kuantikoaz <b>zurtuta</b> geratu ez denak ez du ulertu.»
<b>desenkusatu</b>	«—Barkatu, etxea apur bat desordenatuta dago — <b>desenkusatu</b> zen.»
<b>pagotxa</b>	« <b>Pagotxa</b> gutxi energiaren arloan.»
<b>txabusina</b>	«Garbitzaile batzuk ikusi zituen, <b>txabusina</b> urdinez jantziak, alboko ate batetik irteten.»
<b>patologo</b>	«—Barkatu, idazkariren bat edo? <b>Patologo</b> batekin hitz egin nahi nuke.»
<b>apika</b>	«Gero, <b>apika</b> , hamaika burokraziaren pisu astunak estaliko zituen bidezidor guztiak.»
<b>bidezidor</b>	«Gero, apika, hamaika burokraziaren pisu astunak estaliko zituen <b>bidezidor</b> guztiak.»
<b>pasieran</b>	« <b>Pasieran</b> joan zen, Kontxa alderaino.»
<b>asaldatu</b>	«Barruko egoerak zeharo <b>asaldatu</b> zuen. Enbata lazgarrienak bisita egin balio bezala zegoen guztia...»
<b>enbata</b>	«Barruko egoerak zeharo asaldatu zuen. <b>Enbata</b> lazgarrienak bisita egin balio bezala zegoen guztia...»
<b>triskatuta</b>	«Arropa, janaria, liburuak, ontziteria... Dena lurretik, dena <b>triskatuta</b> .»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>morroilo</b>	«Ba, orduan ez mugitu hortik eta atea <b>morroiloz</b> itxi.»
<b>onenean ez egon</b>	«—Barkatu. Ez nago nire <b>onenean</b> .»
<b>bidenabar</b>	« <b>Bidenabar</b> , begiak adi, txoko guztiak miatzen jarraitu zuen, etengabe.»
<b>miatu</b>	«Bidenabar, begiak adi, txoko guztiak <b>miatzen</b> jarraitu zuen, etengabe.»
<b>berrespen</b>	«—Emakume hori berriro –esan zuen Amaiak. Ez zuen <b>berrespenik</b> behar–. Amaiaren laguna.»
<b>bihozkada</b>	«—Joseba, faborez, ez nahastu bazterrak gehiago. <b>Bihozkada</b> txar bat daukat.»
<b>xuxurla</b>	«—Ezin dugu ezer egin –atera zitzaion <b>xuxurla</b> batean.»
<b>galbahe</b>	«Lehenbizi, ahalik eta datu gehienak bildu. Ondoren, esperientziaren <b>galbahetik</b> pasatu, eta ezinezkoak baztertu...»
<b>mataza</b>	«Datuak behar zituen <b>matazaren</b> mutur guztiak aurkitzeko. Guztiak?»
<b>nahimen</b>	«Zertan ari zen: bere bidea jarraitzen, bere <b>nahimenak</b> erabakitako aukerei men egiten...»
<b>herrestan</b>	«Zertan ari zen: (...) bere nahimenak erabakitako aukerei men egiten... edo menperatu ezin zuen kate ezezagun batek <b>herrestan</b> zeraman lekuetatik...»
<b>petrikilo</b>	«—Sánchez doktorea naiz –jakinarazi zion ahotsak–. Auzitegiko <b>petrikiloa</b> .»
<b>zirkinik egin ez</b>	«Minutu batez <b>ez zuten zirkinik egin</b> , besarkatuta egon eta elkarri begira, besterik ez.»
<b>turkoburu</b>	«Lee Harvey Oswald bat harrapatzeak aseko zintuzke? — <b>Turkoburu</b> bat.»
<b>ase</b>	«Lee Harvey Oswald bat harrapatzeak <b>aseko</b> zintuzke? —Turko-buru bat.»
<b>agondu</b>	«Eta hor daudela jakiteak ere ez digula askorik laguntzen –neska ohean <b>agondu</b> zen.»
<b>galgatu</b>	«...azkarregi jolasean hasteko; azkarregi gero <b>galgatu</b> ahal izateko.»
<b>ozar</b>	«Kapitainak ikusi orduko neurtu zuen laguntzeko bidali zioten agentea: gaztea eta <b>ozarra</b> ...»
<b>konturatzerako</b>	«Bestearen burua nahi zuen berriz, kapitaina eraisteko. Baina <b>konturatzerako</b> zezen baten oldarrak aurretik eraman zuen...»
<b>barrenkor</b>	«Leioara iritsita, ezin izan zuen hotzikara <b>barrenkor</b> bat itoarazi.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>gorraize</b>	«Normala irakasleak ate-kolpeak ez aditzea. Txemak esan zionez, gainera, Otxotorenak <b>gorraize</b> pixka bat zuen.»
<b>churrigueresco</b>	«Bulegoak bazar desordenatua ematen zuen, <b>churriguereskoa</b> , trastez gainezka.»
<b>lukainka sartu</b>	«Ez zion inolako <b>lukainkarik sartuko</b> .»
<b>mordoilo</b>	«Bidali informazio hau guztia Agentziara –eskatu zion Millerri. <b>Mordoiloa</b> askatuko zuten harietako bat hantxe zutela hauteman zuen–.»
<b>hauteman</b>	«Bidali informazio hau guztia Agentziara –eskatu zion Millerri. Mordoiloa askatuko zuten harietako bat hantxe zutela <b>hauteman</b> zuen–.»
<b>kale itsu</b>	«...baina arrasto guztiak <b>kale itsuan</b> amaitu zaizkie.»
<b>zertu</b>	«Hura kristalizatzea, <b>zertzea</b> falta zitzaion, beharbada.»
<b>hurko</b>	« <b>Hurkoaren</b> bizitzaren gaineko botere hark, gogoratu zuen Ramírez kapitainak, bizia kendu edo barkatzeko gaitasunak...»
<b>kankailu</b>	«Eskua besape aldera eraman zuen <b>kankailuaren</b> lagun herrenaz ohartu zen Amaia...»
<b>mirabe</b>	«Filosofok –Voltaire eredu– ez zeukaten asmorik baserritarrek, <b>mirabeek</b> , artisauek irakur zitzaizen.»
<b>apetatsu</b>	«Berrogei jakintsu <b>apetsatsu</b> edo etsikor, edo isil eta zoro.»
<b>jelatu</b>	«...militarren eta zientzialarien arteko harremana bat-batean <b>jelatu</b> zela esango nuke.»
<b>toteltasun</b>	«Infernu bihurtu zitzaion barnetegi batean eman zuen gaztaroa. <b>Toteltasun</b> ezkutaezina atera zuen handik.»
<b>kliska</b>	«...edozein kalkulagailu elektronikok baino azkarrago kalkula zezakeen, edozer gara zezakeen <b>kliska</b> laburrena amaitzerako.»
<b>oparo</b>	«Argia eginez joan zen bere buru <b>oparoan</b> .»
<b>hein batean</b>	«Bohrrek, <b>hein</b> batean, kuantuen munduko <i>egian</i> sinesten zuen...»
<b>soiltasun</b>	« <i>Baina soiltasun horien guztien azpian elefantea zegoen; ohiko logikaren logika!</i> »
<b>fardel</b>	«— A ze <b>fardela!</b> —kexatu zen Bohr, bileraren zergatia ulertuz...»
<b>berretsi</b>	«Einsteinen azken hitzak <b>berretsi</b> zituen...»
<b>akastun</b>	«Paulik dohain berezia zeukan <b>akastun</b> bideak hautemateko, edozein teoriaren oker ezkutuak topatzeko.»